



Txantxetan ari zara, Tanner jauna?  
Jean-Paul Dubois  
Itzultzailea: Mikel Garmendia

Liburu jatorra da, ez du “literatura klasikoaren obra handi bat” izateko bokaziorik, eta alde horretatik, frantziar produktu tipikotzat jo daiteke, darion umorea ere oso frantziarra izanik. Pertsonaia nagusiak bere pasibotasunarekin eta bere “santuegonarriarekin” kirioetatik jartzen du irakurlea, baina horrek ez du garrantzirik; areago, bere erakargarritasunaren parte da. Irakurketa arina, jostagarria, lasaigarria da... Liburu benetan jatorra, ongi itzulia eta irakurle trebatuak zein noizean behinkakoak baietz kontent utzi!